

## AZKEN ATARIKO PROBETARIK ZENBAIT GALDERA

1.-Zelan deitzen zaio leku eguzkitsuari?

- a) Laiotza
- b) Ospela

- c) Argialdea
- d) Egutera

2.-Tira, ba, ohera noa, logura ...

- a) banaiz.
- b) naiz eta

- c) naizela.
- d) bainaizelako

3.-Kostata ari zarete, baina ez duzue asko falta txapeldun izateko. Jarraipen egokia:

- a) Ibili-ibili
- b) Eutsi goiari

- c) Etsi ezazue
- d) Zaudete horretan

4.-.....samarra izan arren, ikasi dut bizikletan ibiltzen.

- a) Moldakaitz
- b) Moldagarri

- c) Moldaezin
- d) Moldakor

5.-Hurrengo esaldietatik zein da zuzena?

- a) Egunero eskolara joateaz aspertutak gaude.
- b) Neska-mutil bihurri horiek harrika egin digute.
- c) Bost enpresek bakarrik gainditu dute hautaprobura.
- d) Mozart bere garaiko gizarteagatik ahaztua hil zen.

6.-Ez haut berriz ikusi nahi nire begien aurrean. Jarraipen egokia:

- a) Hanka hemendik!
- b) Urrun nire begitik!
- c) Joan hadi lekutara!
- d) Ez zaude hemen inguruan!

7.-0063557 telefono zenbaki hau esateko era egokiena:

- a) Hutsa, hutsa, hirurogeita hiru, berrogeita hamabost, zazpi.
- b) Zero, zero, sei, hiru, bost, bost, zazpi.
- c) Hutsa, hutsa, sei, hogeita hamabost, berrogeita hamazazpi.
- d) Zeroa, zeroa, hirurogeita hiru, berrogeita hamabost, zazpi.

8.-Niri 5 euro eskatzea ere! Aukeratu erantzun egokiena:

- a) Beno, eman ba!
- b) Kontxo, emadazu!
- c) Ordea, ez da asko.
- d) Tira, ez da hainbeste.

9.-Zein da zuzena?

- a) Film hori lau bider ikusi egin dut.
- b) Neuk hodei liburu irakurri egin dut.
- c) Uda honetan Joxe argaldu egin da.
- d) Oso eraikin ederrak ikusi egin ditugu gure bidaiari.

10.- Atzo garaiz jaiki izan \_\_\_\_\_ gosari ederra izango \_\_\_\_\_.

- |                |            |
|----------------|------------|
| a) bazinateken | zenuketen  |
| b) bazinete    | zenukete   |
| c) bazineten   | zitzaizuen |
| d) bazinete    | zenuten    |

11.-Hitz zerrenda honetako zein dago ondo euskara batuan?

- a) Arkeologia, abeltzaintza, pilotu, kanoi.
- b) Arkeologia, abeltzaintza, pilotu, kañoi.
- c) Arkeologia, abeltzaintza, pilotu, kainoi.
- d) Arkeologia, abeltzaintza, pilotu, kainoi.

12.-Norbaitekin egon ondoren, agurtzeko zein EZ da egokia.

- a) Ondo izan, Nerea!
- b) Ikusi arte, nerea!
- c) Agur bero bat, Nerea!
- d) Hurrengora arte, Nerea!

13.-Arantzadiko kide batek perretxikoen inguruan hits egingo du. Bestela esanda:

- a) Perretxikoez inguraturik egingo du hitzaldia.
- b) Perretxikoen buruz mintzatuko da.
- c) Perretxikoen gainean hitz egingo du.
- d) Perretxikoen ingurua jorratuko du.

15.-Agindu nizuna egin bazenu, \_\_\_\_\_ .  
Aukeratu jarraipen egokia.

- a) orain astoa saldu eta mandoa erosi behar!
- b) orain usoak joanda, sareak hedatu behar!
- c) orain beste oilar batek joko lizuke kukurruku!
- d) orain zozoak beleari ipurbeltz!

17.-Gurasoen etxetik irten, \_\_\_\_\_ ,  
lurralde misteriotsu batera iritsi zen. Ipuin  
baterako zein da egokiena?

- a) eta ibiltzen eta ibiltzen
- b) eta ibiltzearen ibiltzez
- c) eta ibili eta ibili
- d) eta ibili zen eta ibili zen

19.-Haur askoren ametsa \_\_\_\_\_ bizitzea  
da.

- a) futboletik
- b) futbolatik
- c) futbolagatik
- d) futbolagandik

21.-Ez \_\_\_\_\_ esango gauza guztiak egin  
\_\_\_\_\_ .

- a) diegu                      ditzan
- b) diogu                      ditzala
- c) dizkiegu                  ditzatela
- d) diogu                      ditzan

14.-Ziur nengoen \_\_\_\_\_ aurkituko  
nuela.

- a) non bizitzerik
- b) non bizi
- c) non bizitzeko
- d) non bizitzea

16.-Ondoko zerrenda bat ez da zuzena  
euskara batuan. Zein?

- a) Erreza, farrea, lehoia, milioi bat.
- b) Atzamarra, gustura, urrun, eskaintza.
- c) Andereñoa, batez beste, mendixka, boterea.
- d) Jesarri, mespretxatu, hamahiru, arrautza.

18.-Ai, lagun, ez gaituk lehengoak! Zeri  
erantzuten dio?

- a) Zer moduz?
- b) Zertan ari haiz!
- c) Nolatan, ba?
- d) Zer egin duk, ba?

20.-Usain txarra eta jasangaitza.

- a) Kiratsa.
- b) Lurrina.
- c) Adurra.
- d) Bafada.

22.-Ene, baina zuk ere badakizu Internet  
erabiltzen? Aukeratu erantzun egokia:

- a) Jakingo ez dut, ba!
- b) Ez, horixe behar genuen!
- c) Erabiltzen ohi dut, ba!
- d) Ez, falta zena!

23.-Ez didazu barrerik egingo, \_\_\_\_\_, kaiku horrek!

- a) ez horixe
- b) ezta pentsatu ere
- c) bakarrik falta da
- d) ez da posible

25.-Zein hitz bikote EZ da egokia?

- a) Euri sargori.
- b) Zama astuna.
- c) Matxura larria.
- d) Eguraldi nahasia.

27.-Honek ez dauka ez hankarik, ez bururik! Zer esan nahi du?

- a) Ez daukala zentzurik.
- b) Ezin dela zutik egon.
- c) Bukatu gabe dagoela.
- d) Hasiera eta bukaera txarrak dituela.

29.-Bat-batean minbizia izan nezakeela adierazi zidaten.

- a) Hura nahigabea!
- b) Hura bihotzerrea!
- c) Hura bihozkada!
- d) Hura zoramena!

31.-Gure kalean dendariak haserre dabilta, bizilagunak eta tabernariak elkarren kontra; \_\_\_\_\_. Zein da jarraipen egokiena?

- a) kale horretan ez dago girorik!
- b) zenbat giro gure kalean!
- c) bada giro kale horretan!
- d) Ez da giro kale horretan!

33.-Hutsegiteak ez \_\_\_\_\_ elkarri barkatu.

- a) dizkiote
- b) dizkiete
- c) zaizkio
- d) ditu

24.-\_\_\_\_\_ zer gertatu \_\_\_\_\_

- a) Esan dela!
- b) Esaguzu den!
- c) Esan ezaiguzu denik!
- d) Esan iezaiguzu denentz!

26.-Lau orduren \_\_\_\_\_ jakingo dugu botikak eragin dion ala ez.

- a) barrurako
- b) bitartean
- c) eta gero
- d) buruan

28.-Zer ordu da? Zein dago oker euskara batuan?

- a) Hirurak.
- b) Bostak.
- c) Zazpirak.
- d) Hamabiak.

30.-\_\_\_\_\_ kontuz jokatu behar da.

- a) Inoren gauzeekin
- b) Beste gauzeekin
- c) Besten gauzeekin
- d) Inoren gauzeekin

32.-Hauetako bat ez da jakia. Zein da?

- a) Idikia
- b) Saiheskia
- c) Tripakia
- d) Zazpikia

34.-Aitziber beti berandu. Gaur ere ez da \_\_\_\_\_ etorriko, eta gaitz erdi \_\_\_\_\_ baldin badator, etxean gelditu gabe.

- a) halakoan noizbait
- b) nonbait ondoren
- c) berehalakoan halako batean
- d) garaiz honakoan

35.-Oporretan joatekotan, dirua aurreztu beharko duzu. Baliokidea:

- a) Oporretan joango bazara, dirua aurreztu beharko duzu.
- b) Oporretan joaten bazara, dirua aurreztu beharko duzu.
- c) Oporretan joanez gero, dirua aurreztu beharko duzu.
- d) Dirua aurreztu beharko duzu, oporretan joanda.

37.-Ebakuntza egin diote eta jadanik \_\_\_\_\_ . Aukeratu jarraipen egokia.

- a) Ez ditu minik.
- b) Ez ditu minak.
- c) Ez du minik.
- d) Ez du minarik.

39.-Perretxiko \_\_\_\_\_ erakusketa antolatu dute. Aukeratu hitz egokia:

- a) hiltzaileen
- b) hilkorren
- c) hilgarrien
- d) hilezkorren

41.-Zein da zuzena?

- a) Txakurrari harrika eraso zioten eskola-umeek
- b) Txakurra harrika eraso zuten eskola-umeek.
- c) Txakurrari harrika eraso zieten eskola-umeak.
- d) Txakurrari harrika eraso zitzairen eskola-umeak.

43.-Gaur iragarri den ganadu azoken eta demen debekuak astebete iraungo du.

- a) Astebetean debekaturik dago ganadu-haragia eta barrukiak saldu edo erostea.
- b) Astebete iraungo du ganadu azoka eta demak zabaltzeko planak.
- c) Astebetean bakarrik egingo dira ganadu proba eta azokak.
- d) Astebetean ez da demarik, ez ganaduferiarik izango.

36.-Solaskideak esandako zerbait erabat ukatzeko.

- a) Alajaina!
- b) bai zera!
- c) Jainko maitea!
- d) hara!

38.-Norbait etortzeko irrikitan (irrikan) zaudenean

- a) Etorriko ote da!
- b) Etorriko ahal da
- c) Etorriko ei da!
- d) Jo, etortzea!

40.-Eneko txikiaren gelara sartuta:

- a) Zer gela txukun!
- b) Hau ingurunea!
- c) hau kuxidatea!
- d) Zein txukuntasun dagoen!

42.-Berrogei orrialde falta zaizkit \_\_\_\_\_ bukatzeko. Osatu esaldia.

- a) liburu
- b) liburua
- c) liburuz
- d) liburuekin

44.-Biltzarra Gipuzkoako hiriburuan egin zen, Donostian, \_\_\_\_\_.

- a) bidenabar
- b) besteak beste
- c) alegia
- d) bide batez

45.-Bada gelan otsailaren 29an urteak \_\_\_\_\_ . Aukeratu egokiena.

- a) betetzen duena.
- b) betetzen dituen.
- c) betetzen duela.
- d) betetzen dituela.

47.-Guztiok egon nahi dugu lirain udan, baina horretarako urte osoan zaindu behar! Aukeratu jarraipen egokiena:

- a) Hori da auziaren esne-muina!
- b) Non gogoia, han zangoa!
- c) Hor dago koxka!
- d) Horren baitan gaude!

49.-Euskaera batuan zein dago zuzen?

- a) Zortzitarako iristen ez banaiz, ez egon nire zain.
- b) Zortzietarako iristen ez banaiz, ez egon nire zai.
- c) Zortzietarako iristen ez banaiz, ez egon nire zain.
- d) Zortziretarako iristen ez banaiz, ez egon nire zai.

51.-Mikelek dirua itzuliko diala uste duk? Zein da jarraipen egokiena?

- a) Hori sineskeria!
- b) Jaitsi hadi pikondotik!
- c) Egon hadi horretan!
- d) Emaiok ilargiari bira!

53.-Zein dago zuzen idatzita?

- a) Jakin ezker.
- b) Bapateko bertsoak
- c) Nere etxean
- d) Jakintsuen arabera.

46.-Etsia hurbil ikusi dut. Hau da:

- a) Begien aurrean izan dut arerioa, baina ez ondo-ondoan.
- b) Gertutik erreparatu diot aurkariari.
- c) Eskura izan dut aukera, baina ihes egiten utzi diot.
- d) Dena bertan behera uzteko ez zait askorik falta izan.

48.-Hurrengo multzoetan hitz bat lekuz kanpo dago. Zein da multzo hori?

- a) Zumarra, pagoa, lizarra.
- b) Eperra, usoa, oilagorra.
- c) Aparra bitsa, hitsa.
- d) Albaitaria, erizaina, artzaina.

50.-Ondoko sigkletatik, zein dagokio zerga ezagun bati?

- a) BEZ
- b) HIES
- c) EAE
- d) AEB

52.-Gogor \_\_\_\_\_ bakarrik lortzen da aurrera ateratzea.

- a) saiatuz
- b) saiatzearren
- c) saiatu ondorioz
- d) saiatzen

54.-Egun hartan denda goiz ireki zuen, bezeroak lehen orduan iristen hasiko zirelakoan edo.

- a) Egun hartan lehen orduan bezerorik ez zuela izango uste zuen.
- b) Bezeroak goiz etorriko zirela uste zuen egun hartan.
- c) Goiz ireki ohi zuen denda, bezerorik etorriko ote zen edo.
- d) Denda ireki baino lehenago, hasi ziren iristen bezeroak.

55.-Noiz hasi ziren liskarrak?

- a) 1736eko Urriaren 1ean
- b) 1736.go Urriak 1ean
- c) 1736.eko urriak 1ean
- d) 1736ko urriaren 1ean

57.-Argia jarri ahal izateko hamar metroko \_\_\_\_\_ beharko dut.

- a) luzapena
- b) luzamendua
- c) luzakera
- d) luzagarria

59.-Konortea galdu eta \_\_\_\_\_ erori zen lurrera! Zein da aukera egokiena?

- a) zurrut
- b) dinbi-danba
- c) mara-mara
- d) ziplo

61.-Bakailaoa \_\_\_\_\_ beratu behar da.

- a) urarekin
- b) urean
- c) uretan
- d) urez

56.-Zein da zuzena?

- a) Atzokoan baino laino gehiago izango dugu gaur.
- b) dentistatik etorritakoan Imanolek ez zuen afaltzeko gogorik izan.
- c) Behin betiko lana lortzeko gazte asko edozer egiteko gaiak dira egun.
- d) Kopuru hori ehun pertsonengatik biderkatuta, dirutza ederra eskura dezakezu.

58.-Erleak bere \_\_\_\_\_ sartu zidan. Aukera hitz egokiena:

- a) ziritxoa
- b) orratz-punta
- c) eztena
- d) itsas-oratza

60.-\_\_\_\_\_ erraz ematen du amore. Zein da zuzena?

- a) Hainbat lagun
- b) Hainbat pertsonak
- c) hainbat lagunak
- d) Hainbat pertsonak

62.-Aizu, ez diozu gatzik bota entsaladari! Adierazi ezadostasuna.

- a) Barkatu, gazi dago, ezta?
- b) Bai, arrazoi duzu, erruz bota diot eta.
- c) Botako ez nion, ba!
- d) Ez, ba!

63.-Horrek ere ez du lotsa handirik!  
Adierazi zure adostasuna.

- a) Izango ez du, ba!
- b) Ez, ba!
- c) Egia, lotsatia da eta.
- d) Ezta pentsatu ere!

65.-Ikasketak bertan behera utzi eta banoa mundua ikustera. Aukeratu erantzun egokiena.

- a) Agur zuri!
- b) Ez zaitez hor galdu!
- c) Bejondeizula!
- d) Ondo doakizula

67.-Adituen aburuz, transgenikoei buruzko beldurra funtsik gabekoa da. Hau da:

- a) Adituak beldur dira transgenikoek ondorio kaltegarriak izango ote dituzten.
- b) Jakitunen ustez, ez dago arrazoi sendorik transgenikoei beldurra izateko.
- c) Transgenikoak kaltegarriak dira, baina aditu batzuek ez dute onartu nahi.
- d) Adituen iritziz, oinarri sendoak daude transgenikoez kezkatu egoteko.

69.-Noiz izango da artelan erakusketa?

- a) Datorren ostegunean, hilak 20.
- b) Datorren osteguna, hilaren 20.
- c) Datorren osteguna 20an.
- d) Datorren ostegunak 20an.

64.-Enpresen etekin guztiek nahitaezko dute ohiko bermea, Lan-aholkularitzak baliogabetu ez ditzan. Hau da:

- a) Jasotako aberastasunez baliatu ahal izateko, Lan Saileko aholkulariek horien premia bermatu ohi dute ezinbestean.
- b) Etekinak etxeratu ahal izateko Lan-aholkularitzak berme baliagarri bat eskuratzeko ohitura du
- c) Irabaziak jaso ondoren , Lan Saileko aholkulariek erabakiko dute ohiko bermea noiz baliogabetu eta noiz ez.
- d) jasotako errentak balioesteko ezinbestekoa da Lan-aholkularitzaren ohiko garantia.

66.-Zeuk hil al zenuen txerria? Aukeratu erantzun egokiena.

- a) Ze erremedio, nornahik hil behar zuen, ezta?
- b) Jakina! Nork bestela?
- c) Noski! Beste hiltzekorik ba zegoen ala?
- d) Bai horixe, behingoan egin zituen harenak!

68.-Ez izan inozoa, Pello ez duzu \_\_\_\_\_ iritziz aldaraziko. Zein da aukera egokiena?

- a) halamoduz
- b) hor nonbait
- c) berehalakoan
- d) horrela-horrela

70.-zein da zuzena?

- a) Horixe da niri harritzen nauena.
- b) Areto hori edozein ospakizunerako aproposa duzu.
- c) Hori oso desberdina da nik esan dudanetik.
- d) oso polita dirudi horrek.

71.-Mirenek esandakoa onartzeko modukoa da. Beraz, Mirenek esandakoa ontzat \_\_\_\_\_. Zein dago oker?

- a) jotzen dugu
- b) deritzogu
- c) hartzen dugu
- d) ematen dugu

73.-Zer gertatu zen atzoko bileran? Aukeratu erantzun zuzena.

- a) Inor ere ez lehendakariarekin ez zegoen ados.
- b) Inor ez zegoen ados lehendakariaren proposamenarekin.
- c) Ez zegoen lehendakariaren proposamenarekin ados inor ere ez.
- d) Lehendakariaren proposamenarekin inor zegoen ados.

75.-Hurrengo esaldietatik bat ez da zuzena. Zein?

- a) Azken metroan lortu zuen abantaila.
- b) Abereengandik uste baino gehiago dugu ikasteko.
- c) Beste herrialdeekiko harremanak aberasgarri dira.
- d) Zenbait herrialdetan gosete latza dago.

77.-Gutunaren azalean noiz jarriko duzu ohar hau: "eskutik eskura".

- a) Gutunaren garrantzia dela eta, igorlearen izena ezkutatu nahi duzunean.
- b) Aurretik norbaitek eskuratu dizula iragarri nahi duzunean.
- c) Gutuna nonahi edo edonorentzat zabaldu nahi duzunean.
- d) Hartzaileak gutuna, tartean inork irakurri gabe, jaso behar duenean.

72.-Hura \_\_\_\_\_, zakur handi hura hurbildu zitzaidanena!

- a) estuntza
- b) estuera
- c) estutasuna
- d) estuketa

74.-Aurretik ikasi izan \_\_\_\_\_ orain ez \_\_\_\_\_ hain urduri egongo.

- |             |            |
|-------------|------------|
| a) bazenu   | zinen      |
| b) bazenuen | zinatekeen |
| c) bazenu   | zinateke   |
| d) bazenuen | zinen      |

76.-Zein da zuzena?

- a) Bizkaia da ezindu fisikoei laguntza gutxien eskaintzen dituen lurraldea.
- b) Medikuei gehien kezkatzen zaiena da sindromearen hedapena.
- c) Gaurko eguraldiak aste osoko aro aldakorrari eutsiko dio.
- d) Oporrak iritsi bitartean, udako planak egiten ari da.

78.-Aspaldiko! Nola zabilta Iruñea aldean? Aukeratu erantzun egokia:

- a) Hainbesterako ere!
- b) Tira, hainbeste eta hainbeste!
- c) Tira, hainbestean!
- d) Hainbesterako, neska!

79.-Zein da zuzena?

- a) Handiago eta kokoloago doa mutil hankaluze hori
- b) Gero eta gehiago joan, hobeto pasatzen gugu elur-pistetan.
- c) Zenbat eta gazteagoa izan, are eta kasu gutxiago egiten diete gurasoei.
- d) Nik ez ditut jan zuek jan dituzuen adina pastel.

81.-Zein da zuzena?

- a) 1998ko urtarrilaren 7a.
- b) 1998eko urtarrilak 7a.
- c) 1998.ko urtarilaren 7a.
- d) 1998eko urtarrilaren 7.

83.-Badakit auzi honetan iritzi desberdina dugula, baina beti bezain lagun jarraituko dugu, \_\_\_\_\_. Zein da jarraipen egokiena?

- a) benetan?
- b) egia?
- c) egiaz?
- d) ezta?

85.-ortografiaren aldetik, zein da zuzena?

- a) Gazte Durangarra Euskalerriko Unibertsitatera joan da.
- b) Gazte durangarra Euskal-Herriko unibertsitatera joan da.
- c) Gazte Durangarra Euskal herriko unibertsitatera joan da.
- d) Gazte durangarra Euskal Herriko Unibertsitatera joan da.

87.-Jon, \_\_\_\_\_ datorren igandean antzerkira?

- a) joango ahal gara
- b) joaten gara
- c) joango gara
- d) joaten al gara

80.-Ziur ez dakit, baina \_\_\_\_\_.  
Aukeratu jarraipen egokiena.

- a) ni neu baiezkoa naiz
- b) nik baietza esango nuke
- c) nik bai noski!
- d) ni neu baietzean nago

82.-Sinonimo bikote hauetatik bat oker dago. Zein da?

- |           |            |
|-----------|------------|
| a) idorra | emankorra  |
| b) zeharo | erabat     |
| c) bukatu | amaitu     |
| d) eratu  | antolatatu |

84.-Zenbat buru, \_\_\_\_\_. Nola bukatzen da esaera zahar hau?

- a) zerbaiten aiduru.
- b) istilua seguru.
- c) hainbeste buruhauste
- d) hainbat aburu.

86.-Zein da zuzena?

- a) Oraingo honetan huts eginez gero, hurrengo batean egitea daukate
- b) Herriko jaietan jende gehiegi dagoenez, ezinezkoa da denontzat komunak jarri.
- c) Lanak edonola baina garaiz aurkezteko erabaki zuten.
- d) Urteak joan ahala, aisialdia ustiatzeko erak bilakatzen joan dira.

88.-Oraindik ere zuzendari segitzen al du? Hura ere ez da, ba, \_\_\_\_\_. Zein da jarraipen egokiena?

- a) aurreko urtekoa!
- b) aste honetakoa!
- c) atzo goizekoa!
- d) herenegungoa!

89.-Ondoko hitzetako bat ez dago ondo idatzia. Zein da?

- a) Erronka
- b) Harresia
- c) Harbela
- d) Arotza

91.-Ezagun du horren gaztea dena! Beste era batera esanda:

- a) Trebetasun handia du gaztea zein den jakiteko.
- b) Gazte guztien adiskide da.
- c) Edozein gazte ezagutzen du horrek.
- d) Begien bistan dago haren gaztetasuna.

93.-Pellok nitaz gaizki esaka jardun duela? Aukeratu jarraipen egokiena:

- a) Isats bat axola zait!
- b) Ez zait piper bat ere axola!
- c) Piper bat axola zait!
- d) bada, niri bost axola!

95.-“\_\_\_\_\_ erregearen begirunea lortu zuen”. Ipuin batean, zein izango litzateke ohikoena?

- a) Egunak joan, egunak etorri,
- b) Egunak argitu, egunak ilundu,
- c) Egunak atera eta egunak sartu,
- d) Egunak hasi eta egunak amaitu,

97.-Itsasontziaren aurrealdea, popaz bestaldea:

- a) lema.
- b) kresala.
- c) masta.
- d) branka.

99.-Irakasle horrek \_\_\_\_\_ eta ez dut inoiz gaindituko gai hau. Zein da egokiena?

- a) begiz hartu nau
- b) begikoa bota dit
- c) begitan hartu nau
- d) begiz jo nau

90.-Zer da negutegi bat?

- a) Landareak hotzetik babesteko eraikuntza.
- b) Abereentzako negurako biltegia.
- c) Neguko arropa gordetzeko armairua.
- d) Negu parteko egutegia.

92.-Zenbat eta diru gehiago irabazi, \_\_\_\_\_ gehiago gastatu.

- a) oraindik eta
- b) ahalik eta
- c) hainbat eta
- d) harik eta

94.-Zein da data zuzena?

- a) Mutrikun, 1991ko ekainak 2a.
- b) Bergara, 2000eko maiatzaren 4an.
- c) Gasteizen, 2001ko apirilak 12an.
- d) Zornotza, 1998ko urtarrilaren 11.

96.-Orain heldu aurrekoari eta \_\_\_\_\_. Aukeratu jarraipen egokiena:

- a) gero dioenak bego dio!
- b) gero ikusten!
- c) gero ikusiko!
- d) gero gerokoak!

98.-Liburu hau \_\_\_\_\_ beste guztiak irakurri ditut

- a) izan ezik
- b) baita
- c) ez ezik
- d) ez baino

100.-Amaiak agintzen duena betetzen du beti. Hau da: Pertsona hori \_\_\_\_\_ da.

- a) hitzekoa
- b) egizalea
- c) esanekoa
- d) agintezalea

101.-Bertsolari horrek berehala botatzen du bertsoa. Sekulako \_\_\_\_\_ du horrek!

- a) eroapena
- b) hitz-aspertua
- c) etorria
- d) zeresana

103.-Ondoko hitz sortetako batean ortografi huts bat dago. Zeinetan?

- a) jaitsi, garrasia, deiadarra, oihua
- b) iritsi, oihan, irakatsi, lehiatu
- c) hurrun, hurbil, hurrengo, hurren
- d) likitsa, litsa, bitsa, sitsa

105.-Josu omen da datorren urteko Frantziako itzulia irabazteko hautagai nagusia. Aukeratu erantzun egokia harridura adierazteko:

- a) Bai bada!
- b) Bai alajaina!
- c) Bai zera!
- d) Bai. Ezta!

107.-“Zergatik ez diozu itzuli bere dirua?” galdetu nion eta, zakar, hau erantzun zidan:

- a) Horratik!
- b) Zergatik ez!
- c) Ezergatik!
- d) harexegatik!

109.-Lana amaitu barik laga du. Zein dago gaizki?

- a) Lanaren alde egin du.
- b) Egiteke utzi du.
- c) Bertan behera utzi du.
- d) Alde batera utzi du.

102.-Oraingo diruen orde, euroak eskuratzeko hilabete besterik ez omen dugu izango. Zein erantzun dago oker?

- a) Kontu hori ere ez da makala izango!
- b) Hori ez doa nirekiko!
- c) Lanak emango dizkigu horrek ere!
- d) Horrekin ere komeriak izango dira!

104.-euskara batuan, zein dago zuzen idatzita?

- a) Eginarazi
- b) Egin arazi
- c) Eginerazi
- d) egin erazi

106.-Joan al zineten atzo kontzertura? Zeinek adierazten du ezez?

- a) Zera joango ginen!
- b) Ez, joan barik!
- c) Joan? Hobe joan ez!
- d) Joango ez ginen, ba!

108.-\_\_\_\_\_, hori duk motorra, hori!

- a) Alabaina
- b) Kontxo
- c) Hara bestea
- d) Tori

110.-Erresuma Batuko ordezkariak malgutasuna eskatu zien Edinburghen Europako Elkartearen finantziaketa negoziatzen ari ziren gainontzeko hamaika kideei. Horren arabera:

- a) Hamabi ordezkari bildu ziren Edinburghen Europako Elkartearen finantzaketaz hitz egiteko.
- b) Hamaika elkarterekin negoziatu zuen Erresuma Batuko ordezkariak.
- c) Ordezkarietako bat finantziaketa zorrotz baten alde agertu zen.
- d) Edinburghen ari ziren negoziatzen Erresuma Batuko ordezkariak.

111.-Zein da zuzena?

- a) Artista zaharra bizia kendu da.
- b) Artista zaharrak bere burua bota du leihotik.
- c) Artista zaharra leihotik bota da.
- d) Artista zaharrak bere burua leihotik hil du.

113.-istripua hainbat lagunen aurrean gertatu eta inork lagundu ez eroritako gizarajoari! Zein erantzun dago gaizki?

- a) Zenbat horrelakorik!
- b) Sinestea ere!
- c) halakorik!
- d) Bada gero, e?

115.-Gehienetan ekarri ohi ditu, baina atzo menditik etxerakoan Mirenek ez \_\_\_\_\_ zizarik.

- a) ez zituen ekartzen
- b) ez zuen ekartzen
- c) ez zekarren
- d) ez zekartzan

117.-landarea ez dut behar bezala ureztatu eta \_\_\_\_\_. Aukeratu jarraipen egokiarena:

- a) higatu egin zait.
- b) agortu egin zait.
- c) deuseztatu egin zait.
- d) ihartu egin zait

119.-Madaritan jan genuen! Bestela esanda:

- a) Madarien artean jan genuen.
- b) Besteak beste, madariak ere jan genituen.
- c) Madari betekada galanta egin genuen.
- d) Sekulako madariak jan genituen.

112.-Nora jo ez dakigula gaude. Aukeratu baliokidea:

- a) Hemen gaude, ez batera, ez bestera.
- b) Hemen gaude, batera ala bestera.
- c) hemen gaude, batetik bestera.
- d) Hemen gaude, inondik inora.

114.-Zein da erantzun zuzena?

- a) Asko maitatzen diote elkarri.
- b) Oso maite dute elkar.
- c) Asko maite dira bata bestea.
- d) Asko maitatzen dira bata eta bestea.

116.-harrapatzen bazaitut, harrapatu...! Hori entzundakoan zer ulertu behar duzu?

- a) Zalantza.
- b) Ahalmena.
- c) Irrika.
- d) Mehatxua.

118.-Zein da zuzena? Iritsiko da une bat \_\_\_\_\_

- a) bi alderdien jarrerek bat egingo baitutela
- b) non bi alderdien jarrerek bat egingo duten.
- c) bi alderdien jarrerek bat egingo dutela.
- d) bi alderdien jarrerek bat egingo duten.

120.-euskara batuan, zein dago zuzen idatzita?

- a) Utzi zeniguzun Cdak Grammy saria irabazi zuen.
- b) Jokalari guztiak ondo prestatuta dihoazte finalera eta irabazteko gogo biziz.
- c) Zure adiskideak jolasean zebiltzan guk aurkitu genituenean.
- d) Guk ez genekigun non bizi ziren eta ez genuen deitzerik izan.

121.-Edozein egunkari \_\_\_\_\_ lan  
istripuren bat egunero gertatzen dela  
\_\_\_\_\_.

- a) hartu bagenu            ikus genezakeen
- b) hartuko bagenu        ikusiko genuen
- c) hartzen badugu        ikusiko genukeen
- d) hartuko bagenu        ikusiko genuke

123.-Gurasoak, umeak etxean ez direla  
eta, \_\_\_\_\_ daude.

- a) urdurik
- b) arduratan
- c) arduratutak
- d) kezkatutak

125.-Zein dago zuzen idatzita?

- a) Eguraldiaz hitzegin.
- b) Indiako jaiotz-tasa.
- c) Berehala sar erazi.
- d) Aspertuta baikaude.

122.-hanka sartu duzu berriro ere; eta  
orain, beti bezala \_\_\_\_\_. Aukeratu  
jarraipen egokiena:

- a) neuk atera behar babak eltzetik.
- b) itsuen herrian okerra errege.
- c) mando hilari ostikoa jo behar.
- d) ura pasata errota egin.

124.-Lurraren emankortasuna antzutzen  
ari gara. Hortaz:

- a) Lurra emankor bilakatzen ari gara.
- b) Lurraren etekinak gero eta oparagoak dira.
- c) Lurraren emankortasuna ederresten ari gara.
- d) Lurra gero eta idorragoa da geure erruz.

## ERANTZUNAK

1D	2B	3B	4A	5B	6A	7B
8D	9C	10D	11A	12C	13C	14B
15C	16A	17C	18A	19A	20A	21B
22A	23A	24B	25A	26D	27A	28C
29A	30A	31D	32D	33A	34D	35A
36B	37C	38B	39C	40C	41A	42B
43D	44C	45B	46D	47C	48C	49C
50A	51C	52A	53D	54B	55D	56A
57D	58C	59D	60B	61C	62C	63B
64D	65C	66B	67B	68C	69A	70D
71B	72C	73B	74C	75A	76C	77D
78C	79D	80D	81A	82A	83D	84D
85D	86A	87C	88C	89C	90A	91D
92C	93D	94D	95A	96D	97D	98A
99C	100A	101C	102B	103C	104A	105C
106A	107D	108B	109A	110A	111B	112A
113B	114B	115C	116D	117D	118B	119C
120C	121D	122A	123B	124D	125D	